



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2025-ko Urtarrila

AEMPS-EK GLP-1AREN MEDIKAMENTU ANALOGOEN HORNIDURA-EGOERA EGUNERATU DU

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

ANTSIETATE-NAHASMENDU OROKORRARI BURUZKO PRAKTIKA KLINIKOAREN GIDA BERRIA

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUAK PEDIATRIAN SEGURTASUNEZ ERABILTZEKO GOMENDIOAK

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

AEMPS: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINA

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

BERRITASUNAK PRESIDEN

- Atzerriko medikamentuak e-rezetan

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- NICE: asma maneiatzeko gomendioak eta baliabideak
- BMJ: maskuri hiperaktiborako farmako antikolinergikoekin lotutako demenzia-arriskua 55 urtetik gorako helduetan
- SPS: medikamentuak hautatzea irensteko zailtasunak dituzten pazienteengan

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA –BERREZARPENAK

- Metilfenidato askapen luzeko konprimatuaren hornidura-gabezia

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

AEMPS-EK GLP-1AREN MEDIKAMENTU ANALOGOEN HORNIDURA-EGOERA EGUNERATU DU

2024ko abenduaren 9an, AEMPSek GLP-1aren medikamentu analogoen hornidura-egoera eguneratu zuen. Merkatuan GLP-1aren medikamentu analogoen horniduraren jarraipen zorrotza egiten jarraitzen du. Horrekin batera, farmako horiek preskribatzean fitxa teknikora egokitze beharra azpimarratzen du.

Novo Nordisk-ek liraglutida printzipio aktibo gisa duen medikamentuaren merkaturatzea (Victoza®; 6 mg/ml disoluzio injektagarria aurrez kargatutako luman) 2025aren amaieran etetea aurreikusten du, zeina 2. motako diabetes mellitusa tratatzeko erabiltzen baita. Beraz, hori kontuan hartzea gomendatzen da tratamendu berriak hastean eta jada hasitako tratamenduak mantentzean.

Gogorarazi dute beste medikamentu batzuk merkatuan sartu direla (Wegovy®; -semaglutida- eta Mounjaro® -tirzepatida-), finantzatuta ez daudenak. Horiek, beren fitxa teknikoan jasotzen dute pisuaren kontrola dieta osasungarriarekin eta ariketa fisikoarekin konbinatuta, obesitatearen eta komorbiditateekin batera ematen den gehiegizko pisuaren kasuetan. Informazio gehiago [esteka](#) honen bidez.

2

ANTSIETATE-NAHASMENDU OROKORRARI BURUZKO PRAKTIKA KLINIKOAREN GIDA BERRIA

[Kanarietako Osasun Zerbitzuko Ebaluazio Zerbitzuak](#) egindako [Antsieta-te-Nahasmendu Orokorra \(ANO\) Lehen Mailako Arretan tratatzeko PKG](#) honek partzialki eguneratzen du 2008ko aurretiazko dokumentu bat. Horrek ANOaren diagnostikoa eta tratamendua eta angustia-nahasmendua jorratzen zituen, agorafobiarekin edo gabe; hala, gida berriak ANOaren tratamenduan dauden aurrerapen berriak hartzen ditu barne.

Gomendio eguneratuak ematen ditu, modu sistematikoan garatuak eta eskuragarri dagoen ebidentzia zientifiko onenean oinarrituak, inplikaturako profesionalei eta pazienteei laguntzeko, beren osasun-arazoari aurre egiteko aukera terapeutiko egokienei buruzko erabakiak hartzean.

Horren helburua da praktika klinikoaren aldakortasuna murriztea, osasun mentaleko arreta espezializatuarekiko koordinazioa hobetzea eta paziente horiei emandako asistentziaren kalitatea hobetzea, euren bizi-kalitatea hobetzeko.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3

MEDIKAMENTUAK PEDIATRIAN SEGURTASUNEZ ERABILTZEKO GOMENDIOAK

Duela gutxi, Osasun Ministerioak "Recomendaciones para el uso seguro de los medicamentos de alto riesgo en pediatría" dokumentua argitaratu du.

Pediatriako pazienteetan, hainbat faktore espezifiko elkartzen dira. Horien ondorioz, medikazio-akatsak helduetan baino sarriagoak izaten dira, eta akats horiek kontrako ondorioak eragiteko arriskua handiagoa da.

Dokumentuak pediatriako pazienteentzako arrisku handiko medikamentuen erreferentziazko zerrenda bat ematen du, zentroek arrisku handiko medikamentuen segurtasuna hobetzeko programak garatu eta inplementatzearen beharra azpimarratzen du, akatsak prebenitzeko gomendatzen diren segurtasun-praktika orokorrak jasotzen ditu, akatsik ohikoenak deskribatzen ditu, eta praktika espezifikoak adierazten ditu honako talde farmakologiko edo arrisku handiko medikamentu hauentzat: ZB agonista adrenergikoak, antibiotiko aminoglukosidoak, ahotiko antikoagulatzaileak, heparinak eta beste antikoagulatzaile parenteral batzuk, blokeatzaile neuromuskularrak, insulinak, sedazio moderatu eta minimorako medikamentuak, nutrizio parenterala, opioideak, metotrexatoa (erabilera ez-onkologikoa), ZB parasetamola, ZB potasioa eta bankomizina.

Dokumentua eskura dezakezue [esteka](#) honen bidez.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4

AEMPS: GIZA ERABILERARAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUN-BULETINA

AEMPSen giza erabilerarako medikamentuen segurtasunari buruzko 2024ko abenduaren 20ko buletinean, farmakozaintzako datuen aldizkako ebaluaziotik eratorritako informazio hau nabarmentzen da:

Angiotentsina II hartzaileen antagonistak (olmesartana, irbesartana, balsartana, losartana, kandesartana, eprosartana eta telmisartana), bakarrik edo konbinatuta: hesteetako angioedema-kasuak jakinarazi dira. Pazienteek sabeleko mina, goragalea, gorakoak eta beheak izan zituzten, eta desagertu egin ziren tratamendua eten ondoren. Hesteetako angioedema diagnostikatzen bada, eten tratamendua eta zaindu sintomak erabat osatu arte.

Hesteetako angioedema gehitzen da maiztasun arraroko kontrako erreakzio gisa losartanarekiko, olmesartanarekiko eta irbesartanarekiko, eta maiztasun oso arraroko gisa balsartanarekiko eta kandesartanarekiko. Arrisku horri buruzko ohartarazpen bat ere gehitzen da beste ARA-II batzuen fitxa teknikoetan, hala nola eprosartana eta telmisartana.

Bilastina: QT tartearen luzapen-kasuak jakinarazi dira. Arreta gomendatzen da arrisku handiagoa duten pazienteetan (bihotzeko arritmien aurrekariak dituzten pazienteak; hipopotasemia, hipomagnesemia edo hipokaltzemia duten pazienteak; QT tartearen luzapen ezaguna edo bradikardia esanguratsua duten pazienteak; eta QT/QTc tartearen luzapenarekin lotutako beste medikamentu batzuk aldi berean hartzen dituzten pazienteak).

Espironolaktona: mitotano-maila plasmaticoak murriztu ditzake kartzinoma kortikosuprarrenalala duten pazienteetan. Ez dira bi medikamentuak batera erabili behar.

Lantanoa: kontraindikatuta dago heste-buxadura duten pertsonengan.

Paracetamola/klorfenamina maleatoa: paracetamola kontuz eman behar zaie glukosa-6-fosfato deshidrogenasa (G6PD) eskasia duten pazienteei; izan ere, metahemoglobinemia eta anemia hemolitikoa eragin ditzake. Gainera, adierazten da paracetamol-gaindosi batek koagulazio intrabaskular barreiatua eragin dezakeela.

Bardenafiloa: SJS eta NET sindrome-kasuak jakinarazi dira, hilgarriak izan daitezkeenak. Erreakzio horiek iradokitzen dituzten zantzuak edo sintomak agertzen badira, eten berehala tratamendua, eta ez berrabiarazi inoiz. SJS eta NET gehitzen dira maiztasun ezezaguneko kontrako erreakzio gisa. Gainera, koriorretinopatia seroso zentrala gehitzen da maiztasun ezezaguneko kontrako erreakzio gisa. Informazio gehiago nahi izanez gero, AEMPSren hileko segurtasun-buletina kontsulta daiteke [esteka](#) honetan, 2024ko abenduaren 20an argitaratu zena.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 | BERRITASUNAK PRESBIDEN

Atzerriko medikamentuak e-rezetan

Atzerriko medikamentuen DOE kode hauek sartu dira e-rezetan, elektronikoki preskribatu ahal izateko (Presbide):

Kodea	Izendapena
148000	ATZERRIKO MEDIKAMENTUA TRIFLUOPERAZINA 5 MG 20 KONPRIMATU ESTALIAK
148001	ATZERRIKO MEDIKAMENTUA ETOSUXIMIDA 50 MG/ML AHOTIKO SOLUZIOA/SUSPENTSIOA 200 ML FLASKO 1
148002	ATZERRIKO MEDIKAMENTUA FENOXIBENZAMINA 10 MG 100 KAPSULA
148003	ATZERRIKO MEDIKAMENTUA UBIDEKARENONA 50 MG 14 KAPSULA
148004	ATZERRIKO MEDIKAMENTUA UBIDEKARENONA 50 MG/10ML AHOTIKO SOLUZIOA/SUSPENTSIOA 10 BIAL
148005	ATZERRIKO MEDIKAMENTUA DAPSONA 50 MG 50 KONPRIMATU
148006	ATZERRIKO MEDIKAMENTUA METOXALENOA 10 MG 30 KONPRIMATU

Medikamentu horien preskripzioa informatiboa baino ez da; farmazia komunitarioan ikusgai egongo dira, baina ezin izango dira eman. Pazienteak medikamentua jasotzen jarraituko du, orain arte bezala, Osasun Lurralde Ordezkaritzan (Olaguibel kalea, 38). Ez da beharrezkoa eskuz idatzitako mediku-errezeta eramatea medikazioa jasotzeko, orain arte egiten zen bezala.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

NICE: asma maneiatzeko gomendioak eta baliabideak:

Bide klinikoa da, zeinak erakunde hauen gomendio eta baliabideak biltzen baititu helduen, gazteen eta haurren asmaren diagnostikoari, jarraipenari eta tratamenduari buruz: British Thoracic Society (BTS), National Institute for Health and Care Excellence (NICE) eta Scottish Intercollegiate Guidelines Network (SIGN).

Informazio gehiago [esteka](#) honetan.

BMJ: maskuri hiperaktiborako farmako antikolinergikoekin lotutako dementzia-arriskua 55 urtetik gorako helduetan

Duela gutxi BMJn argitaratutako kasu-kontrol habiaratutako azterlan batean, maskuri hiperaktiboa tratatzeko erabilitako farmako antikolinergikoen kontsumo metatua behatu zen, dementzia-diagnostikoa egin baino 3-16 urte lehenagoko denbora tartean. Aztertutako biztanleriaren % 62,6 emakumeak izan ziren, eta batez besteko adina 83 urte.

Artikuluak ondorioztatzen du maskuri hiperaktiboa tratatzeko erabiltzen diren farmako antikolinergikoen artean aurkitu zela oxibutinina-klorhidratoa, solifenazina-sukzinatoa eta tolterodina-tartratoa estuago lotuta zeudela adineko helduen dementzia-arriskuarekin.

Argitalpena eskuratu dezakezue [esteka](#) honen bidez.

SPS: medikamentuak hautatzea irensteko zailtasunak dituzten pazienteengan

Specialist Pharmacy Service-k (SPS) zenbait gomendio argitaratu zituen 2024ko abenduaren 17an, irensteko zailtasunak dituzten pazienteentzat medikamentuak zuzen hautatzeko: aurkezpen egokiak aukeratzeko orduan kontuan hartu beharreko faktoreak deskribatzen dituzten 6 urrats, hain zuzen.

Informazio gehiago [esteka](#) honetan.

Gogoan izan, halaber, irensteko eta/edo forma farmazeutikoak egokitzeko zailtasunekin lotutako beste baliabide batzuk ere eskuragarri daudela, hala nola [Deglufarm](#) aplikazioa edo [Ahotiko medikamentuak ematea: nola eta noiz eman](#) INFACa.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- Aproxxamlo® 300 mg/10 mg filmaz estaliko 30 konp. (irbesartana, amlodipinoa)
- Celestone cronodose® 2 ml-ko bial 1 (betametasona)
- Clarelux® 500 mcg/g larruazaleko aparra 100 g-ko presiodun ontzi 1 (klobetasola)
- Fosrenol® 750 mg 90 konp. murtzikagarri (lantano karbonatoa)
- Gonapeptyl depot® 3,75 mg aurrez kargatutako xiringa 1 + aurrez kargatutako disolbatzaile xiringa 1 (triptorelina)
- Menaderm otológico® 0,25 mg/ml + 10 mg/ml tanta otikoak soluzioan, 10 ml-ko ontzi 1 (beklometasona/kliokinola)
- Tiaprizal® 100 mg 24 konp. (tiaprida)
- Zubsolv® 1,4 mg/0,36 mg eta 2,9 mg/0,71 mg, 7 eta 28 mihipeko konp., (buprenorfina/ naloxona)

Metilfenidato askapen luzeko konprimatuen hornidura-gabezia

AEMPSeK, 2024ko abenduaren 19an, [eguneraketa](#) berri bat argitaratu zuen metilfenidatoa printzipio aktibo gisa duten medikamentuen (askapen luzeko konprimatu-forman) hornidura-egoerari buruz.

Eguneratze horretan adierazten da laborategiek baieztatu dutela 2025erako Atenza® eta Concerta® unitate gehiago egongo direla, hornidura normaltasunez berrezartzen dela bermatzeko.

Gaur egun, hornidura ez dago guztiz berrezarrita, eta, beraz, medikazioa atzerriko medikamentu gisa eskuratzeko aukera dago oraindik. Erabiltzaileek jatorrizko OTIa eta banku-txartela eraman beharko dituzte dagokion Osasun Lurralde Ordezkaritzara (Olaguibel kalea, 38). Garrantzitsua da aldeztu aurretik egiaztatzea preskribatutako dosiaren arabera beharrezkoa den aurkezpena eskuragarri dagoela, alferrikako joan-etorriak saihesteko.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Abipol® 5 mg 28 kap. (aripirazola)
- Acarbosa Tecnigen® 50 mg, 100 konp. (akarbosa)
- Cholestagel® 625 mg filmaz estalitako 180 konp. (kolesevelam hidrokloruroa)
- Ciclochem® baginala, 40 g-ko ontzi bat (ziklopiroxa)
- Dagan® EFG 5, 10 mg 30 konp. ahosakabanagarri (zolpidema)
- Tofranil® 25 mg 50 estalitako konp. (imipramina)
- Gabapentina Teva® EFG 100 mg 90 kap. gogor (gabapentina)
- Insucor® 2,5 mg 28 konp. (nebivolola)
- Jorveza® 0,5 eta 1 mg 60 konp. ahosakabanagarri (budesonida)
- Pecfent® 400 mcg/lainozt. sudurretik lainoztatzeko soluzioa 8 dosi, 1 eta 4 ontzi (fentanilo zitratoa)
- Retirides® 0,25 mg/g krema 30 g-ko ontzi 1 (tretinoia)
- Sandostatin® 100 mcg/ml soluzio injektagarria eta perfusiorako, 1 ml-ko 5 anpoila eta Sandostatin Lar® 20 mg suspentsio injektagarriko hauts bial 1 + disolbatzaile xiringa 1 + orratz 1 (oktreotida)
- Tofranil® 25 mg 50 estalitako konp. (imipramina)
- Trulicity® 0,75 mg soluzio injektagarria k/4 luma (dulaglutida)
- Zyprexa® 10 mg soluzio injektagarriko hautsa, bial 1 (olanzapina)

PRESBIDEN “Hornidura-gabezia” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornikuntza-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- PRESBIDE; [Medikamentuan hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPS; [Hornidura-arazoak dituzten medikamentuen zerrendarako sarbidea](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetza intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez